

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mari Carmen Furundarena Martiarena

*Donostia,
Gipuzkoa
(1932)*

Aurkibidea

Biografia



Zintak

DON-136

- **Proiektua:** Bizi dugun Antigua
- **Elkarrizketatzailea(k):** Duarte, Joserra
- **Data:** 2009-06-08
- **Iraupena:** 13 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Emalea:** Tolosa, Iker

Pasarteak

1. Antiguan beti ondo konpondu izan dira

- **Erref:** DON-136/002
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:00:16. **Bukatu:** 00:00:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Antigua beretzat auzorik politena da. Bertako bizilagunak beti konpondu izan dira ondo, ez zen gauza txarrik entzuten.

Transkripzioa

Ba Antigua neretzako da nere auzo pollitena. Hemen bizi geran jende guztiya izan gea beti... Oain, klaro, berriya dago asko, baiño lehengo jendea, ezagunak denak, eta ondo eraman gera beti denok. Behin ez da hemen pasa ezer, ez lapurrik -ez zan entzuten behintzat-, ez... Zea, hemen oain dauden bezela, beti burruketan ta gauza hoietan. Beti lasaiak ta beti ondo bizi izandu gea.

2. Antiguan kalean jostatzen ziren

- **Erref:** DON-136/004
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:01:11. **Bukatu:** 00:02:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Gerra denboran kanpoan egon ziren. Handik bueltan, mojen ikastetxean hasi zen eta 14 urtera arte egon zen bertan. Handik irten eta 18 urtera arte denda batean ibili zen lanean. Orduan kalean jostatzen ziren; paretaren kontra jostatzeagatik udaltzainek isuna jartzen zieten.

3. Antiguako aisialdi guneak

- **Erref:** DON-136/006
- **Iraupena:** 0:00:27. **Hasi:** 00:02:31. **Bukatu:** 00:02:58

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia

Laburpena:

Frontoian eta hondartzan igarotzen zuten beraien aisialdia. Mutilek "El campo de Ramón" izenekoan eta hondartzan jolasten zuten futbolearen.

4. Antiguako lantegiak

- **Erref:** DON-136/008
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:03:14. **Bukatu:** 00:04:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Lan desberdinak egin izan ditu Mari Carmenek. 14 urterekin janari-denda batean hasi eta lau urtez aritu zen bertan. Gerora, 12 urtez, Ategorrietako okindegi batean ibili zen. Ez du sekula lantegi batean egin lan, nahiz eta auzoan hainbat egon: garagardotegia, Lizarriturri edo Suchard, besteak beste. Apurka-apurka lantegiak beste toki batzuetara eraman zituzten. Auzoa asko aldatu dela gaineratzen du. Lehen Maitia kaletik mendia ikus zitekeen; gerora, aldiz, porlana baino ez.

5. Lantegiak auzotik joan eta baita auzotarrak ere

- **Erref:** DON-136/010
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:04:58. **Bukatu:** 00:05:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Eguerdiko hamabietan lantegietako txirrinak jotzen zuen. Txapel- eta kandela-lantegiak ere bazeuden Antiguan. Bertako jendea kanpora joan zen eta kanpokoak bertara.

6. Antzeztokiko lurra hondoratu zenekoa

- **Erref:** DON-136/012
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:06:14. **Bukatu:** 00:07:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Bere etxean entzundako anekdota bat kontatzen du. Bere ama eta izeba antzezlan bat ikusten zeudela, antzertokiko lurra hondoratu zen.

7. Igeldora zinemara eta dantza egitera

- **Erref:** DON-136/014
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:08:07. **Bukatu:** 00:09:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Igeldoko jaietan zinema ikustera eta dantza egitera joaten ziren. Dirua aurrezteagatik oinez joaten ziren. Antiguako eskolan botatzen zituzten filmak.

8. "Acción Católica"ko kidea

- **Erref:** DON-136/016
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:09:32. **Bukatu:** 00:10:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

Laburpena:

"Acción Católica"ko kidea zen gaztetan, "Hijas de María"koa. Matia kalean zuen egoitza. Mutilak "San Luis" kongregaziokoak ziren eta danborradan ateratzen ziren.

9. Antigua hobetu da, baina lehengo gauzak falta dira

- **Erref:** DON-136/018
- **Iraupena:** 0:00:27. **Hasi:** 00:11:04. **Bukatu:** 00:11:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Antigua orain askoz handiagoa da. Kanpoko jende asko etorri da eta ez dira denak ezagutzen. Politagoa dago, baina lehenagoko gauzak botatzen ditu faltan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com